



Lankide estimatua:

Dakizunez, [maiatzaren 8tik 11ra Abokatuen XII. Kongresu Nazionala](#) egingo dugu **Valladoliden**. Hain zuzen ere, horixe izaten da lau urterik behin abokatuok dugun hitzordua gure jarduerari lotutako ideiak eta proposamenak, erronkak eta egonezinak eztabaidatzeko.

Aurtengoa kongresua desberdina izango da: anizkuna gaiei eta ikuspegiei dagokienez, eta aberasgarria ahots eta esperientzia albait gehien bilduko dituelako. Baina, batez ere, praktikoa izango da, lanbidearen benetako beharrianei lotuta. Horretarako, 120 panel eta tailer baino gehiago jasotzen dituen programa diseinatu dugu. Programa ikusteko, Kongresuko web orrira jo dezakezu, helbide honetan: <https://www.congresoabogacia.es>

Kongresua hainbat gai elkarbanatzeko espazioa izatea nahi dugu: zuzenbidearen hainbat esparrutako ezagutzak eta talentua, ekintzailtza, teknologia eta pentsamendua. Batzarkide bakoitzak bere ibilbidea egin ahal izango du, bere interesen eta beharrienen neurria, eta, aldi berean, hizlariekin eta bertaratuekin networking egin ahal izango du. Kongresua arrakastatsua izango da, neurri handian, lankideon parte-hartzea aktiboa eta konprometitua bada. Hori dela eta, kongresu honetan parte hartzera gonbidatzen zaitugu, etorkizuneko abokatutza guztion artean eraiki ahal izateko.

Goian aipatutako estekaren bidez, kongresuan izena eman dezakezu, programa ikusi eta antolaketa-berrikuntza guztien berri izan. Web orria etengabe eguneratuko dugu.

Kongresu handi honetan zurekin batera parte hartu nahi dugu. **Valladoliden** elkar ikusiko dugu [maiatzaren 8tik 11ra](#).

Besarkada bat,

**Victoria Ortega Benito**  
Espainako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiko  
presidentea

**Lurdes Maiztegui González**  
Gipuzkoako abokatuen elkargoko dekanoa